



ETXEBIZITZA BIRGAITZEKO LAGUNTZEN ESKAERA (1. LERROA - OBRA PARTIKULARRAK)

<p>1. Aurkeztu beharreko dokumentazio orokorra</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eskabidea aurkezten duen pertsonaren legezko ordezkaritza egiaztatzen duen agiria edo, hala badagokio, ordezkaritza emateko agiria. (Ordezkaritzaren Xedapena) • Higiezinaren jabetzaren egiaztagiria (eskritura edo erregistroko ohar soil eguneratua). • Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren (OHZ) ordainagiria. • Emandako obra-lizentzia edo haren eskaera. • Ordaindutako obren udal-zergen eta tasen ordainagiriak, halakorik balego. • Obrak hasi aurreko egoeraren koloretako argazkiak, birgaitu beharreko etxebizitzarenak / eraikinarenak. • Familia bakarreko etxebizitzaren/baserrien kasuan: Eraikinaren Ikuskapen Teknikoaren (EIT) txostena, Udalean aurkeztu izanaren udal-erregistroarekin. EITa EuskoRegiteren plataforman erregistratzen denean, ez da beharrezkoa izango dokumentazio hori aurkeztea, eta ofizios egingo da egiaztapena. • Onartutako obren aurrekontua (kontratututako gremioena) partidaka banakatuta, bakoitzaren neurketa, prezio unitarioa eta BEZa adierazita. EITak 1., 2. eta 3. mailetako esku-hartzeak zehazten baditu, horien konponketa aurrekontuan sartu beharko da. • Obra gauzatzeko egutegia, gehienez ere bi urtekotan banatuta. • Proiektu teknikoa, ikus-onetsita, obrak hala eskatzen badu. • Ordainsari teknikoaren aurrekontua, obrak hala eskatzen badu (proiektua idaztea, obra zuzendaritza, segurtasuna eta osasuna koordinatzea, EIT...).
<p>2. Diru-laguntza eta/edo mailegua eskatu behar bada, 1. puntuan adierazitako dokumentazioa aurkezteaz gain, honako hau ere aurkeztu beharko da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Bizikidetzako udal-ziurtagiri eguneratua (errola agiria), birgaitze-jarduketan xede den etxebizitzan bizi diren pertsona guztiak jasotzen dituen. • Eskatzailearen hirugarrenaren alta agiria, beteta eta sinatuta. (Hirugarrenaren alta) • Eskatutako obra-aurrekontuen hornitzaile desberdinen hiru eskaintza ekonomiko eta hautaketaren justifikazioa, diruz lagundu daitekeen gastua 40.000 eurotik gorakoa denean. • Idatziz egindako obra-kontratua (edo sinatutako eskaintza), diruz lagun daitekeen kostua 60.000 eurotik gorakoa denean. • Bizikidetzaren unitatea osatzen duen persona bakoitzaren diru-sarreraren egiaztagiria. <ul style="list-style-type: none"> ○ PFEZ aitortu baduzu: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitortpena, eskabide hau aurkezteko unean mugaeguneratutako azken ekitaldiari dagokion foru-ogasunean edo bankuan aurkeztu izanaren zigiluarekin. ▪ Kotizaziorik gabeko prestazioak jasoz gero, dagokion ziurtagiria. ○ PFEZ aitortu ez baduzu: <ul style="list-style-type: none"> ▪ Kasu guztietan: <ul style="list-style-type: none"> - Foru Ogasunaren ziurtagiria, zergaldi horretan (eskaera hau aurkezten denean amaituta dagoen azken ekitaldian) PFEZ aitortu beharrik ez duzula egiaztatzen duena. - Lan-bizitzaren ziurtagiria, Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrek egina. ▪ Besteren konturako langilea bazara: <ul style="list-style-type: none"> Zergaldi horretan kontzeptu guztiengatik jaso dituzun sarrera gordinak adierazten dituen dokumentua, enpresak edo enplegu-emaileak egina. ▪ Pentsiodunen edo edozein beka, prestazio edo subsidio jasotzen dutenen kasuan (Gizarte Ongizateko laguntzak barne): <ul style="list-style-type: none"> - Horien ziurtagiria, ekitaldi horri dagokiona. • Beste administrazio batzuetatik jasotako edo, hala badagokio, jaso beharreko diru-laguntza emateko agiria.



2. motako obretarako – energia-eraginkortasuna hobetzea (gainera):

- **Egungo** etxebizitzaren/eraikinaren **eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria** (obren aurrekoa) eta **etiketa energetikoa**.
- Lortu nahi den etxebizitzaren/eraikinaren **eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria (proposamena)**.

3. motako obretarako – irisgarritasuna hobetzea (gainera):

- Irisgarritasun-araudira egokitzeko justifikazioa (68/2000 Dekretua eta CTE DB- SUA).

3. Irisgarritasunerako diru-laguntza berezia eskatuz gero, 1. eta 2. puntuetan adierazitako dokumentazioaz gain, honako hau ere aurkeztu beharko da:

- Mugikortasun murriztua edo zentzumenezkoa duen **desgaitasunaren ziurtagiria**, hala badagokio.